Irungo
euskarazko
hamabostekaria

Irunero

394

Apirilak 1, 2021

2 Irun Atzo, Irun Gaur
3 Ekintza kulturalak
4 Badoa
5 (H)istorien mapa
6-7 Gazteluzar proiektua
8 Kirolak: Ilcapo Hondarribia eskubaloi taldea
9 Kirolak: Eskuz Binakako Masterra
10 Turismo ekimenak
11 Haurren lanak / Denbora-pasak
12 Gazteen lanak
13 Beti gazte: Asexora-T
14 iGazte
15 Agenda

Janeth Carreño
Koordinatzailea
667 94 04 05

caser cuidados

INFORMA ZAITEZ!

Etxez etxeko laguntza

EDOZEIN EGOERATAN:
- Menpekotasunean
- Ahalmen urritasunean
- Konbaleszentzia edo gaixotasunean

EDOZEIN DENBORAZ
- Aldi baterakoa
- Iraunkorra

EDONON LAGUNTZEN
- Etxean edo etxetik kanpo
- Ospitalean
-Egoitzan
-Enpresan

ZER GERTATU ZEN IRUNEN ORAIN DELA 100 URTE?

1921eko apirilaren 3an argitaratutako "El Bidasoa" aldizkariak orain dela 100 urte Irunen albiste ziren gertaerak biltzen ditu. Aldizkari horretako lehen testuan hiriaren "oso humanitarioa" titulua nondik datorren azaltzen da. Jarraian, Pedro Sarasqueta Eibarreko idazlea Irunera bizitzera etorri den albistea jasotzen da aldizkariaren lehen orrialdean irakur daitekeen hurrengo idatzian. Juan Basurkok "Mariñel gizagajuak" izeneko olerki sorta irakur daiteke "El Bidasoa" aldizkariaren 292. zenbakian. Lehen orrialdearen amaieran Hondarribian jazotako hondamendi bat aipatzen da, gaiari buruzko xehetasunak eman gabe, jada beste egunkarietan argitaratuak izan direla argudiatuz. Hala ere, "El Bidasoa" aldizkariko erredakziotik diru-bilketa bat antolatu dela jakinarazten da, herritarren ekarpenen bitartez Hondarribian kaltetutako familiak laguntzeko.

Kirol kronikan, berriz, Espainiako futbol txapelketaren garapenaren jarraipena egiten da, Vigoko partiduan gertatutakoa laburbiltzeaz gainera, Irunen jokatuko den hurrengo norgehiagokaren xehetasunak emateko. Ondoren, Irunen gazte talde batek Junkaleko Andre Mariaren elizan antolatutako erlijio-musikaren kontzertuaz hitz egiten da. "Buzón del Bidasoa" atalean, berriz, hiritarrek aldizkariaren erredakziora bidalitako gutunak erantzuten dira. Juan de Uranzuk Lehen Mundu Gerrak hirian logelen gabezia eragin duela jakinarazten du, arazoari buruzko ikerketa batean bildutako datu zehatzak zabaltzeaz gainera. Artikuluak aldizkariaren hurrengo zenbakian jarraipena izango duela adierazten da idatziaren amaieran.

"Cuento Vasco" titulua daraman artikuluan S. Ignotusek Joshe-Mari pertsonaian oinarritutako kontakizuna kontatzen du. Aldizkaria amaitu aurretik, "Notas Municipales" atalean azken udal bilkurako erabakiak laburbiltzen dira, "Ecos de Sociedad" atalean gizarteko goi-klaseetako biztanleen gorabeherak biltzen dira, publizitate orrialdearen aurretik, berri laburren "Noticias" atalarekin amaitzeko.

Argazkiak:
G40620: Inaugurazio egunean, 1913ko uztailean, "El topo"-k izandako istripuaren biktimen hiletaren argazkia. Biktimei eta zaurituei laguntzeagatik, hiriak "oso humanitario" titulua irabazi zuen.

G29323: Junkaleko elizako argazki zaharra.

G48921: Eskoleta eta Fermin Calbetón kaleak. Gerra Zibileko sutearen ondorioz desagertutako eraikinetako batzuk ikus daitezke.

IRUNERO

Erredakzioa eta maketazioa:
Ainara Berges
erredakzioa@irunero.eus
irunero@irunero.eus

Administrazioa:
Joseba Arozena

Zuzenketa:
Carlos Sánchez

Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du:

Ayuntamiento Udala irun www.irun.org

Publizitatea:
Amaia Terrazas
Ion Otxoa
Joseba Arozena
(jarozena@irunero.eus)

Diseinua eraberritzea:
Andrea Gomez Arocena

Inprenta:
ZEROA MULTIMEDIA S.A.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua:

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Argitaratzailea:
837 comunicación y publicidad S.L.
www.837comunicacion.com

ISSN: 1134-0606

Lege gordailua: SS-230-94

Tel: 943042052

Webgunea: irunero.eus

Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du:

Gipuzkoako Foru Aldundia

Kultura arloak zuzeneko musika, sorkuntza eta bertako talentua babesteko konpromisoa berretsi du

2021eko kultura programazioak ohiko formatuak eta formatu berritzaileak uztartuko ditu

Juncal Eizaguirre ordezkariak Irungo Udaleko Kultura Arloak autrtengo erronken berri eman du. Kultura ordezkariak baieztatu duenez 2021ean ere sektorea indartzeko ildo estrategikoari eutsiko diote.

Gauzak horrela, Kultura Arloak datozen hilabeteetarako jardueren programazioak oinarrian izango dituen hiru ildo estrategikoak identifikatu ditu: zuzeneko musika eta, tartean, Irun Zuzenean programa; sorkuntza; eta bertako talentuaren babesa. Juncal Eizaguirrek baieztatu duenez, "gehitzeko apustu bat da. Irunen badugu programazio zabal eta askotarikoa. Era honetan, urte batetik bestera errepikatzen diren formatu eta proposamenak, agenda erakargarriago egingo duten formatu berriekin uztartzeko asmoa adierazi du Kultura ordezkariak.

Irun Zuzenean
Irungo musika programazioak estilo eta guneen aniztasunari erantzutea du helburu, eta sektore publiko eta pribatuaren arteko elkarlanaren eta aliantzen ikuspegitik planteatzen da, eskaintza sendotzeko. Irun Zuzenean hiriko kultur programazioaren barruko musika adierazpide nagusietako bat da, eta "hitzordua inguruan erreferente diren jaialdien zirkuituan sartzeko apustu irmoa egin dugu. Egungo egoerak, pentsatzekoa denez, horrelako ekitaldien formatuak mugatzen ditu, baina hobera egiten duenean jaialdia sustatzen jarraitzea da gure asmoa", azpimarratu du ordezkariak.

Bestalde, jaialdiaz harago, Juncal Eizaguirrek "zuzeneko musikaren esparruan jauzi bat egiteko nahia" iragarri du. Ildo horretatik, Kultura Arloak kanpoko aholkularitza zerbitzu baten laguntza izango du 2021ean musika programazioari lotutako gaietarako. "Gure helburuen berri emango diogu, eta, elkarrekin, musika zirkuitu bat eratuko dugu hirian, askotariko kontzertuz eta formatuz osatutakoa", erantsi du ordezkariak.

Irun Factory
Arte garaikidea ere, Irun Factory izenpean, 2021ean kultura arloan jarduera ildoetako bat da. "Sorkuntza eta artisten lana sustatzeko programak bultzatzen jarraituko dugu, ohiko formatuak eta formatu berritzaileak konbinatuta. Dagoeneko badugu esperientzia handiko proiektu sorta interesgarri bat, hala nola Auzo Sortzaileak, Ribera, Kontenporanea eta Soinu Labor", adierazi du Eizaguirrek.

Alde horretatik, Kultura Arloak jarduera ildo honetarako baliabide gehiago jartzeko helburua jarri dio bere buruari. "Dagoeneko sendoak diren programak aurrera eramateaz gain, helarazten zaizkigun proposamen guztiak entzungo ditugu, gogoz entzun ere, eta berauek aztertzea izango da gure lehentasunetako bat".

#KulturaKm0 eta gazteak
2021ean #KulturaKm0 zigilua sendotuko dela baieztatu du ordezkariak. "Irungo kultur programazioa osatzeko bertako artista eta profesionalengana jotzea ez da kontu berria, baina onartu beharra dago orain inoiz baino beharrezkoagoa dela, egungo egoera dela eta. Hiriko sare kultural profesionalari laguntzeko programa honek oso harrera ona izan zuen joan den urtearen bukaeran, eta, 2021ean jarraituko du, urteko programa bilakatuta", azaldu du Kulturako ordezkariak.

Horiek horrela, Irun Aurrera planaren barruan, Kultura km 0 programak formatu espresa izateari utziko dio eta 2021erako programazio egonkorrean bihurtuko da, sortzen ari diren talentu gazteak direla protagonista. Aurtengo edizioak 50.000 euroko aurrekontua izango du, 2020an bezala, baina, gainera, 8.000 euro gehiago jarriko dira, bertako artisten obra erosteko.

CBA 2.0
CBA handituta hirian sortuko diren aukera berriak ere aztertu ditu Juncal Eizaguirrek. Irungo kultur instalazio nagusia da CBA, eta, "nolabait, aipatutako hiru ardatz estrategikoetatik sortzen joango diren funtsezko proiektuen egoitza iraunkorra bihurtzea gustatuko litzaiguke, hirian sortzen ari diren talentuen topagunea".

Gaur egun, CBAren bigarren faserako proiektua idazten ari dira. 3,5 milioi eurokoa da lanak egiteko aurrekontua.

"Sorkuntza eta artisten lana sustatzeko programak bultzatzen jarraituko dugu

"Dagoeneko sendoak diren programak aurrera eramateaz gain, helarazten zaizkigun proposamen guztiak entzungo ditugu, gogoz entzun ere"

ANTXETA IRRATIA 90.5 / 89.7 FM

Olaizola INMOBILIARIA AGENTZIA
Salmenta-Alokairuak
Promozio berriak
Aholkularitza
Beraketa kalea, 17 • 20302 IRUN • Tel: 943 626585
info@inmobiliariaolaizola.com
www.inmobiliariaolaizola.com

Aurrera doa Badoa Behe Bidasoko banaketa kooperatiba berria

Argazkia: Gari Garaialde

Behe Bidasoko banaketa kooperatiba berria aurkeztu da Badoa izenaren azpian. Eskualde osoan euskara, gaztelania eta frantsesez zerbitzua eskaintzeko asmoarekin jaio da, ekonomia sozial eta eraldatzailearen ikuspegitik. June Arruti Badoa kooperatibaren funtzionamendua nolakoa izango den azaldu du.

Zergatik erabaki zenuten eskualdean banaketa kooperatiba berri bat sortzea?
Badoa BDS Koop-eko Eraldaketa Fabrikaren lehen proiektua da eta banaketa zerbitzuak beste modu batean egiteko nahitik sortzen da. Bestalde, Gasteizen bada Eraman izeneko enpresa bat, bizikletarekin banaketa zerbitzuak egiten dituena eta hemengo pertsona batekin harremanetan jarri ostean, Badoa sortu zen.

Lanean hasi aurretik, eskualdeko beharrak aztertu dituzue, ezta?
Bai, horixe izan da BDS Koop-eko Eraldaketa Fabrikaren bitartez egindako aurretiazko lana. Ikerketa horren bitartez eskualdeko beharrak zeintzuk ziren identifikatu genituen, ondoren, aukerak zeintzuk ziren aztertzeko.

Badoak natura zein pertsonentzat banaketa sistema jasangarria eskaini nahi du?
Bai, hori da. Ez da banaketa bizikletaz egiten duen lehen kooperatiba. Izan ere, mota honetako kooperatibak enpresa kapitalista handiak gazteen egoera larriaz aprobetxatzen zirela ikusita sortu ziren, banatzaileei lan baldintza duinak eskaintzeko asmoz. Ezagunena, Bartzelonako Mensakas izan daiteke, baina gehiago daude. Horixe da gure helburua, enpresa kapitalista handiak eskualdera iritsi aurretik bestelako banaketa zerbitzua eskaini nahi dugu. Banaketa bizikleta bidez egiten denez zerbitzu ekologikoa da. "Cargo bike" izena duten bizikleta mekanizatuak lortzeko asmoa dugu, baina momentuz bizikletak zahar-berritzen ari gara eta, enpresa handiek ez bezala, langileen lan baldintza duinak ziurtatzen ditugu, guretzat oinarrizkoa baita.

Enpresaren balioei garrantzi handia ematen zaie Badoan?
Bertakoa izatea garrantzitsua iruditzen zaigu, zerga zein irabaziak bertan gelditzen direlako, kanpora joan gabe. Eraginkorrak izateko bizikletak zama handiak eraman ahal izateko egokitzen ditugu. Gainera, "CoopCycle" aplikazioa erabiliz logistika lana antolatzea errazagoa izango dela uste dugu, lanari duintasuna emateaz gainera. Honela, banatzaileek ez dutelako denbora gehiena itxaroten pasako.

Beraz, ez da kasualitatea banaketak bizikletaz egiteko erabakia?
Alde batetik, lantaldeko 4 pertsonek bizikleta asko maite dugula uste dut, garraiobide moduan erabiltzeko ohitura dugu eta. Herri eta hiri artean mugitzeko bizikleta azkarragoa dela uste dugu, ia edozer gauza garraiatu daitekeelako bizikletaz. Hortaz, autoen ordez, kaleak bizikletez beterik ikustea politagoa litzatekeela uste dugu.

Zerbitzua eskualde osoan eskainiko duzue, hau da, mugaren bi aldeetara?
Zerbitzua Irun, Hondarribi eta Hendaian eskaini nahi dugu, eskualdean elkarbizitza asko dagoela ikusita.

Proiektua hiriko merkatari edo ostalarien artean aurkezten hasi zarete?
Jendeak gure proiektuan interesa duela dirudi, gure filosofia partekatzen duelako. Ostalarien artean zabaltzen hasi gara, sektore hori delako gure ustez banaketa zerbitzuekin lotura estuena duena eta errazagoa iruditzen zaigu beraiekin hastea. Aldi berean, merkataritza edo paketeria zerbitzuak eskaini nahi ditugu eta oraindik horretarako nola funtzionatu beharko dugun ikusteko dago.

Zein izango da zerbitzuaren funtzionamendua?
Esandako moduan, CoopCycle aplikazioa erabiliko dugu eta aukeran dauden ostalaritza establezimendu eta saltoki guztiak kontsultatu daitezke bertan. Erosketa aplikazioaren bitartez egiten da, guk geuk eskaria nora eraman behar dugun ikusteko. Horrek banaketa ibilbideak antolatu eta hoberena aukeratzea ahalbidetzen digu.

Zertan desberdintzen zarete beste banaketa enpresetatik?
Bertakoak eta etikoak izateaz gainera, langileen ongizateari garrantzi handia ematen diogu. Era horretan, lan-baldintza prekariorik gabe, banatzaileen lanari duintasuna eman nahi diogu. Asko dira banatzaile gisa lan egiten dutenak eta horietako askok bizikleta aukeratzen dute garraiobide moduan, ez beste aukerarik ez dutelako, baizik eta haien erabakia delako.

Proiektuari bultzada ekonomikoa emateko, dirua biltzeko kanpaina abiatu duzue?
Bai, "Emaiguzu bultza bat" izeneko kanpaina ekonomikoa abiatu dugu. Kanpaina honen bitartez gure lana aurrera eramateko laguntza eskatzen ari gara eta gure webgunearen bitartez ekarpen ekonomikoa egiteko aukera eskaintzen dugu. Ekarpen ekonomikoa egiten duten pertsonen artean zozketa bat egingo dugu eta gurekin lan egiten duten ostalaritza establezimenduetako lau bazkari edo afari izango dira sariak, irabazleen etxeetara eramango ditugunak.

Badoa martxan jartzeko, zeintzuk dira eman beharreko hurrengo pausuak?
Gurekin lan egingo duten taberna eta jatetxeen zerrenda finkatzea falta zaigu. Pixkanaka hasi nahi dugu, ez baita gure helburua gauza asko eta gaizki egitea, zerbitzua nola egin eta hobetu daitekeen ikasi nahi dugu lehenengo. Ondoren, aplikazioan ostalaritza establezimenduen gaineko informazio guztia ipini beharko genuke, lanean hasi aurretik.

"Jendeak gure proiektuan interesa duela dirudi, gure filosofia partekatzen duelako"

Parean elkarteak emakume irundarrak eta iraganeko lanbideak ezagutzeko bi ibilaldi proposatzen ditu

Parean elkarteak "(H)istorien mapa" jardueran aurkeztu berri du. Zehazki, bi dira Parean elkarteak proposatutako ibilbideak: "Irungo emakumeak plazara" eta "Irungo emakumeen lanbideak". Oihana Llorente Parean elkarteko ordezkariak ibilaldien helburuetan sakondu du.

Nola sortu zen proiektu hau martxan jartzeko ideia?
Proiektua bera aspalditik dator. Izan ere, orain dela 10 bat urte Mertxe Trancherekin batera Irungo kale izendegian emakume izenak falta zirela aztertu genuen. Udaleko alderdi guztiei hiria handitu ahala kale berriei edo izena aldatzekotan emakume izenak ipintzea proposatu genien. Horrela, emakume izena zuten 2 kale izatetik egun 10-11 izatera pasa gara. Gerora emakume horiek zeintzuk ziren jende gutxik zekiela jakinda, dokumental bat egitearen ideia sortu zen, batez ere, ikastetxeekin lantzeko asmoarekin. Horrela, informazio hau guztia hirian kokatzea eta ibilaldiak sortzea bururatu zitzaigun. Bi ibilaldi dauzkagu, bata emakumeen izenekin eta bestea, berriz, Irungo emakumeek egiten zituzten lanekin. Lehen paseoak dokumentaleko informazioa biltzen du eta bigarrenak, aldiz, Mertxe Trancheren lanaren bidez, emakumeen ekarpena aitortzen du. Proiektuaren ideia emakumeen historia biltzea da, gizonen ikuspegitik urrundu eta emakumeek egindako ekarpenak bildu eta omentzeko.

Nolako arrakasta izan zuten martxoaren 20an antolatutako ibilaldiek?
Arrakasta handia izan zuen eta pena bat izan zen, izan ere, pandemiaren ondorioz, ibilaldien edukiera mugatu behar izan genuen, une oro distantziak errespetatzen zirela ziurtatzeko. Hortaz gain, geldialdiak moldatu eta ezin izan genituen mapan adierazitako lekuetan egin, hau da, plaza zabalagoak lehenetsi genituen jendea zabaltzeko. Hala ere, oso polita izan zen, eguraldiak lagundu zigun eta Mertxeren laguntzaz megafoniarekin bi orduz hiriari buelta eman genion orain dela mende bateko Irunera bueltatzeko.

Ibilaldiak berez bakoitzak bere kabuz egiteko prestatuta daude?
Bai, proiektua orain dela bi urte amaitu genuen eta pandemia iritsi zenean proiektuari zabalpen nahikoa ematea lortu ez genuela konturatu ginen. Hortaz, aurten erronka gisa jendeak ibilaldiak ezagutzea eta erabiltzea markatu genuen. Ikasturte hasierarekin ikastetxeei

"Ibilaldian zehar geldialdiak identifikatzeko udalak zenbait plaka ipintzea gustatuko litzaiguke"

mapen berri eman genien, bitarteko hori eskura zutela jakinarazteko. Badakigu zenbait ikastetxetan 5. eta 6. mailan hiria ikastean eta Martxoaren 8aren harira baliabide pedagogiko hau erabili dutela. Hortaz gain, materiala adineko zentroetako dinamizatzaileei eskaini diegu memoria ariketetan gaia landu dezaten. Azken finean, ziur bertako emakumeek lanbide hauek ezagutu zituztela edo beraien ama edo amonak lanbide horietan ibiliko zirela. Azkenik, proiektua gizarteratzeko azken ekintza gisa ibilaldia antolatzea erabaki genuen, baina, oso mugatuta gaudenez, ezin izan diogu nahiko genukeen zabalpen guztia eman. Gaur egun, modu birtualean erabilgarri dago eta gure esku dagoen guztia publikatu dugu. Ibilaldietako geldialdi bakoitzak euskaraz eta gaztelaniazko testu bana dauka, PDF formatuan daude deskargatzeko moduan, gertaera testuinguruan jartzeko fototekatik hartutako argazki historiko eta audio batekin osaturik. Gure asmoa da, eta hemendik Irungo udalari eskaria luzatzen diogu, paseo horiek lurreratu eta ibilaldian zehar geldialdiak identifikatzeko udalak zenbait plaka ipintzea gustatuko litzaiguke.

Zer nolako emakumeak eta lanbideak aurkitu daitezke ibilbideetan?
Izen-abizenekin, Dolores Salis, Menchu Gal, Leire Landa, eta Vicenta Olazabal. Izen-abizenen bat izan arren, poxpologileak edo mandatugileak kolektibo bezala bildu nahi izan ditugu, iraganean izan zuten garrantziarengatik. Lanbideen ibilaldian, berriz, 14 lanbide bildu ditugu, adibidez, poxpologileak edo mandatugileak. Azken horiek Donostiaraino mandatuak eramaten lan egiten zuten neska oso pobreak ziren, inolako argiztapenik gabe neguan goizean goiz atera eta kilometro luzeak oinez egiten zituztenak. Hortaz gain, inudeak, merkatariak, baserritarrak, txalupariak (garai batean Hendaiara gurutzatzeko modu bakarra baitzen), urketariak, garbitzaileak edo labanderak, sexu-langileak, irakasleak eta jostunak. Bide batez, Irunen joskintzak garrantzi handia izan baitzuen kokapen geografikoaren ondorioz Parisetik Donostiara uda pasatzera etortzen zirenek ohialak ekarri ohi zituzten hemengo jostunekin haien jantziak egiteko eta, zentzu horretan, lehen moda aldizkaria Irunen egin zela uste da.

Proiektua jendartera zabaltzean, hiritarrek gaiarekiko interesa erakutsi dute?
Bai, paseoan audioak jartzen genituen eta Mertxe Trancheren azalpenekin osatu genituen. Jendeak interes berezia erakutsi zuen Mertxek azaldutako bitxikeria eta kuriositate guztiak ezagutzeko.

Etorkizunean ibilaldiak luzatu edo ibilaldi berririk sortzeko asmoa duzue?
Zenbait ideia dauzkagu, adibidez, ibilaldi bera Hondarribian egitea gustatuko litzaiguke eta horretarako bertako historialari batekin lanean gabiltza izen-abizenak biltzeko. Oraindik segurua ez den arren, horretan lanean gabiltza. Internet kontuetan adituak izan ez arren, horrelako mapak nola egiten diren ikasi dugu jada eta modu polit eta pedagogikoa iruditzen zaigu historia zabaltzeko.

Gaur egun zein bestelako proiektuetan murgildurik dago Parean elkartea?
Egia esan, saltsa askotan sarturik gaude. Iaz Eguzkitza eskolako liburutegia aztertu genuen genero ikuspegitik. Horretarako, liburutegiko 4.000 liburuetatik 400 liburu aztertu genituen adierazle batzuen arbera haur eta gazteei nolako protagonismoa eskaintzen diegun jakiteko, idazleak neskak edo mutilak diren jakin eta emakumeak nolako testuinguruan agertzen diren jakiteko. Poliki-poliki Irungo gainontzeko ikastetxeetako profesionalei genero ikuspegian formazioa eskaintzen ari gara, prozesu bera burutu dezaten eta liburuen hautaketak nolako garrantzia duen jakin dezaten. Badakigu irakasleek lan asko dutela, beraz, alderdi horretan guk geure laguntza eskaini nahi diegu. Apirilean zaintzaren gaineko jardunaldiak antolatzeko asmoa dugu, zaintzarekin arkitektura eta zaintzen duten komunitateen inguruan. Konfinamenduan hainbat zaintza sare sortu ziren Gipuzkoan eta fenomeno horiek ikertuz zaintzaren esparruan nolako proiektu publiko-komunitarioak sortu daitezkeen ikertu dugu. Hortaz gain, beste hamaika saltsetan murgildurik gaude.

Gazteluzarreko iragana aztergai Toki Alaiko ikasleentzat

Irungo Toki Alai Bigarren Hezkuntzako ikastetxeko ikasleak, ikastetxea Gazteluzarren alboan kokatuta dagoela aprobetxatuz, gazteluaren gaineko STEAM proiektua egiten ari dira. Proiektua aurrera eramateko hainbat ikasgaietan landutako edukiak uztartu dituzte, 1522ko gudua nola gertatu zen ulertzeko helburuarekin. Gazteluzarreko ikasle eta irakasleak proiektuaren garapenarekin lortutako emaitzekin pozik azaldu dira.

Irakasleen inplikazioa

Ane Lizeaga Gazteluzarreko STEAM proiektuan inplikatuta dauden irakasleetako bat da eta proiektuaren ideia nola eta nori bururatu zitzaion azaldu du.

Nola sortu zen ikasleekin proiektua martxan jartzeko ideia?

Proposamena Matematika mintegitik etorri zen, Aritz Audikana da bertako mintegi burua eta berak sortu zuen proiektuaren alde potoloena. Matematiketan parabolak eta bestelakoak lantzeko, ikastetxe alboko lurretan dagoen Gazteluzar gaztelua erabiltzea aproposa izan zitekeela bururatu zitzaion, klasean landutako ariketak errealitatera gerturatzeko. Ideia horrela sortu zen eta, azkenean, STEAM proiektu bat bihurtu zen, hau da, diziplina arteko proiektua, hainbat ikasgaik parte hartzen dugu helburuak aurrera eramateko. Parabolak lantzeaz gainera, ikasle irundarrek hemengo historia ere ikasi dute. Hortaz gain, neurketa eta frogak egin ahal izateko beharrezkoa den materiala guk geuk sortuko dugu. Ikusten duzuen moduan hemen topografiako instrumentuak dauzkagu eta ideia Gazteluzarri falta zaion hirugarren dorrea berreraikitzen saiatzea da, adibidez, mural baten bitartez guri dagokigun eskolako zatian, gaur egun existitzen ez dena. Horretarako, neurketak egin ahal izateko aparatu hau erosi genuen. Era berean, badu honek beste helburu bat, emakumeei erakustea bestelako lanbideetan sartzeko aukerarik badutela. Hain zuzen ere, ingeniaritza edo bestelako lanbideetan ia ez da emakumerik apuntatzen eta, ondorioz, gaitasuna badutela erakutsi nahi diegu eta haien interesa piztu nahi dugu honelako lanbideekiko.

Azaldutako moduan, proiektua ia ikasgai guztietara zabaldu duzue azkenean?

Bai, ia guztietara. Matematiketatik abiatu zen, baina erabilera asko dauzka. Teknologian aplikatu daiteke instrumentuak eta planoa eraikitzen ikasteko. Plastikan ere aplikazioa izan dezake, existitzen ez den dorrea marraztuko dute. Hizkuntzek ere proiektuan parte hartzen dute, adibidez, gaztelanian 3. mailan proiektuarekin loturiko lanen bat egiten ari dira. Hortaz, nahi bezainbeste ikasgaitara zabaldu daiteke.

Ikastetxe osoko ikasleak inplikatuta daude proiektuan?

Ez, aurten batez ere 3. eta 4. mailako ikasleak ari dira proiektua lantzen. Beste mailetan bestelako proiektuak lantzen dira, baina Gazteluzarrekin loturiko proiektua bereziki 3. eta 4. mailan lantzen ari da.

Zein fasetan dago proiektua?

Momentuz Gazteluzarren paretak neurtu ditugu, egun oraindik zutik daudenak. Orain gaztelua barnetik neurtzea falta zaigu, ondoren zuinketa egin ahal izateko, hau da, datuak planora eraman eta falta den dorrearen zentzua non dagoen kalkulatu beharko genuke, ostean, gure zatian marrazketak landu ahal izateko. Bestetik, pare bat jaurtigailu eraiki dira eta beste bat eraikitzeko prozesuan gaude, baina horrelako ekintzak eguraldi txarreko egunetan egin ohi ditugu, kalera irtetea ezinezkoa dela aprobetxatuz. Laugarren mailako beste taldetxo batean hidrolisia lantzen ari dira, biologia eta geologiako irakaslearekin. Horrela, hidrogenoa lortu dute eta gure ideia erregai gisa erabiltzea da jaurtigailuak erabili ahal izateko. Hortaz, plastikako ikasleak gure zain daude, guk zentrua eman eta haien zereginarekin hasi ahal izateko, beraz prozesuaren erdian gaude.

Erraza izan zaizue liburuak alde batera utzi eta eskola orduetan proiektu berezi honi denbora eskaintzea?

Ikastetxean liburuetako ariketez gain, bestelako proiektuak lantzeko ohitura dago. Izan ere, gaur egun ikasgai askotan ez dago libururik eta irakasleak berak lantzen ditu materialak. Hortaz, irakasle batzuei bestei baino gehiago kostatu zaie agian, baina orokorrean oso aberasgarria da honelako proiektu bat aurrera eramatea.

Datozen ikasturteetan proiektuari jarraipena eman edo beste proiektu berririk abiatzeko asmotan zabiltzate?

Printzipioz hasi dugun honi jarraipena eman beharko diogu, aurten ez dugulako proiektua guztiz amaitzeko denborarik izango. Aurten zuinketa egiteko denbora badugu, pozik egongo ginateke. Horrela, hurrengo urtean murala bukatu eta bitarte horretan ziur proiektuarekin loturiko bestelako aukerak zabalduko direla, matematika edo gizarte arloan proiektu berriak hasteko aukera emango dutenak.

“Ikastetxean liburuetako ariketez gain, bestelako proiektuak lantzeko ohitura dago”

Toki Alaiko Bigarren Hezkuntzako ikasleak Gazteluzarreko guduan oinarriturik burutzen ari diren proiektua azaldu dute

Beñat Cabrero eta Iare Karrera Gazteluzar proiektuan boluntario ari diren ikasleetako batzuk dira. Haien ikaskideen izenean proiektua garatzeko ikastetxean antolatutako lantaldeen zereginak azaldu dituzte.

Zer iruditu zitzaizuen irakasleek Gazteluzar gazteluarekin loturiko proiektu bat egitea proposatu zizuetenean?

Beñat: Hasiera batean Gazteluzarren inguruan izandako gudua proiektatzeko proiektu bat egin behar genuela kontatu ziguten, hau da, proiektuaren lanketa historiko eta matematikoa egiteko. Horrekin loturik, kainoi bat sortzeko proiektu boluntarioa zegoela azaldu ziguten, Gazteluzarreko gudua eta garai hartako edukia nolakoa zen hobeto ezagutzeko.

Iare: Hori da. Kurtso hasieran irakasle bakoitzak sarrera moduko bat egin zigun bere ikasgaiari buruz proiektuak nolako aplikazioa izango zuen ikusteko. Esaterako, biologia eta geologia ikasgaian harriak aztertu genituen eta matematiketako ikasgaian proiektu osoaren zentzua azaldu ziguten, izan ere, ikasgai horretako irakaslea izan baitzen proiektua abiatu zuena. Hortaz, ikasgai bakoitzean proiektuaren zatitxo bat landu dugu.

Ikasle moduan zein ardura dauzkazue proiektuan?

Iare: Gu laugarren mailako ikasleak gara eta borondatezkoa da proiektuan parte hartzea. Hirugarren mailako ikaskideak proiektuaren alde teknikoa lantzen ari dira, testuinguruan kokatzeko historiaren lanketa, testuen idazketa eta antzeko zereginak egiten ari direlako. Laugarren mailan, berriz, proiektuaren alde praktikoan zentraturik gaude eta, horretarako, taldetxo txikietan sakabanaturik gaude. Guztira, 5 arlo daudela uste dut. Adibidez, hidrolisia kimikako ikasgaiarekin loturik dago. Topografia eta kanoien eraikuntza teknologia eta matematika bezalako ikasgaiekin loturik daude. Azkenik, marrazketa eta plastikarekin lotura estuagoa duten beste bi arlo dauzkagu.

Zuentzat honelako proiektu praktiko baten bitartez klasean ikusitako edukiak lantzea lagungarria dela uste duzu?

Beñat: Bai, klasean eduki asko lantzen dugu, baina horrelako proiektuek orrialde batean idaztea baino zerbait gehiago egin dezakegula erakusten digute. Eskolan ikasitako gauzak bizitza errealean nola aplikatzen diren ikusi dugu, ohituta ez gauden teknologia erabiltzen ikasi dugu eta klasean ikasitako edonon eta edozein unetan baliagarria izan daitekeela konturatu gara.

Erraza izan da tresneria eta material berria erabiltzen ikastea?

Iare: Tresneria berria erabiltzen ikasteko aukera izatea oso aberasgarria izan da. Izan ere, klasean gaudenean eduki gehienak modu teorikoan lantzera ohiturik gaude, baina proiektu honi esker eduki teorikoaren aplikazio praktikoa nola egiten den ikusi ahal izan dugu. Horrela, bizitza errealean nola lan egiten den ulertu dugu, guk eskolan proiektu honetarako erabilitako tresnak zenbait lanbidetan erabiltzen diren erreminta berdinak direlako. Hasieran material ezezagun horien erabilerara egokitzea konplikatua izan bazen ere, azken finean, uste baino dibertigarriagoa eta interesgarriagoa dela konturatu gara. Gainera, modu horretan edukiak barneratzea errazagoa zaigula ikusi dugu.

Proiektua aurrera eramateko datozen aste eta hilabeteetan egin beharreko lanak zeintzuk diren argi duzue jada?

Beñat: Nik hidrolisiaren taldean lan egin dut eta gure helburua hidrogenoa lortzea zen, kanoietan erregai moduan erabiltzeko. Hortaz, gure taldeak bere zeregina bete du jada.

Iare: Ni, berriz, topografia eta kanoiaren taldean sartuta nago. Topografiako taldearen helburua zelaian neurketak egitea da, ondoren plastikako taldeari gure taldetxoan egindako neurketen emaitzak emateko, gure neurketak amaitu arte plastikako taldea ezin daitekelako lanean hasi. Bestetik, kanoia gudua nola gertatu zen ulertzeko erabiliko dugu, mugimenduak eta eraso taktikak nola gauzatu zituzten ikusteko.

Beste ikasleei honelako proiektu batean parte hartzea gomendatuko zeniekete?

Iare: Nire ustez benetan aukera ederra da. Egia esan, hasieran proiektuan izena ematerako orduan zalantzak izan nituen. Behin proiektuan murgilduta sekulako aukera dela ikusi dut, benetako tresneria erabiltzen ikasteaz gain, modu ezberdinean gauzak ikasteko aukera ematen dizulako. Egia da eskolaz ordutegitik kanpo lan egin behar dela, baina merezi du.

Beñat: Gauza berriak ikasteko modua da eta ikasle zein irakasleekin bestelako harremana duzu. Eskolan egiten ez diren ariketak egiten ditugu eta zerotik zerbait berria sortzen ikasi dugu. Oso aberasgarria da benetan erabilgarria den zerbait sortzeko gai izan zarela ikustea, beraz, aukera polita da.

“Tresneria berria erabiltzen ikasteko aukera izatea oso aberasgarria izan da”

Iare Karrera, Gazteluzarreko ikaslea

“Horrelako proiektuek orrialde batean idaztea baino zerbait gehiago egin dezakegula erakusten digute”

Beñat Cabrero, Gazteluzarreko ikaslea

Agirre-Larramendik Arrizabalaga-Agirreren aurka indarrak neurtuko dituzte Emakume Master Cup-eko finalean

Iera Agirre eta Maite Ruiz de Larramendik osatutako bikoteak Olatz Arrizabalaga eta Naroa Agirreren aurka indarrak neurtuko dituzte Emakume Master Cup-eko finalean. Txapelketaren final handia apirilaren 4ko eguerdiko 12:00etan jokatuko da Urantzu pilotalekuan.

Emakumezkoen Laboral Kutxa esku pilota txapelketa hirira itzuli da 2021ean. Izan ere, aurreko urteko finala ere Irunen jokatu zen. Zehazki iaz, bi final jokatu ziren Urantzu pilotalekuan. Pilota goxuko finalean Iera Agirrek eta Maite Ruiz de Larremndik Galeano ahizpak garaitu zituzten belaunaldiarteko lehian. Pilota mistoan, berriz, Leire Garai eta Olatz Ruiz de Larramendi izan ziren gairaile Olatz Arrizabalaga eta Gentzane Aldairen aurka jokatutako partiduan.

Borja Olazabal Kirol ordezkariak azpimarratu duenez, "Oso albiste ona da emakumezkoen mailako txapelketa bat Urantzura itzultzea. Gure hiriko frontoia horrelako ekitaldietarako aproposa dela eta antolatzaileen itxaropenei erantzuten diela erakusten du. Horretarako baldintzak betetzen direnean bakarrik bete ahal izango dugu publikoarekin".

Finalerdien emaitza

Oraingoan Eskuz Binakako Laboral Kutxa Emakume Master Cupeko finalerdien eta finalaren lekuko izango da pilotaleku irundarra. Finalerdiak martxoaren 20an jokatu ziren. Finalerdiko partiduetan Iera Agirre eta Maite Ruiz de Larramendi 10 puntuko aldearekin (22-12) garaitu zuten Naroa Elizalde eta Olatz Ruiz de Larramendik osatutako bikotea. Era berean, Olatz Arrizabalaga eta Naroa Agirrek 14 puntuko aldearekin (22-8) lortu zuten finala jokatzeko pasea Leire Garai eta Oihana Orbegozoren aurkako finalerdian.

Laboral Kutxako Emakumeen Master Cup-eko antolakuntzatik adierazi dutenez, finala nafarren eskarmentuaren eta bizkaitarraren eta gipuzkoarraren ilusioaren arteko norgehiagoka izango da. Izan ere, finalerdietako partiduetan ikusi zenez, bi bikoteek urte baino errazago garaitu zituzten aurkariak finalaurreko neurketetan. Hortaz gain, bere berezitasunekin, baina, biak oso ondo moldatzen diren bikoteak dira, jokoan kimika berezia erakusten baitute, beraz, lehen mailako finala ziurtatuta dago.

Finalerdietako lehen partidan etxean bakartuta dagoen Irantzu Etxebeste Naroa Elizaldek ordezkatu zuen. Lehen finalerdia ezustekoarekin hasi zen, izan ere, partida hasi aurretik inork gutxik espero zuen Olatz Ruiz de Larramendik aurrean jokatuko zuenik. Hortaz, Naroa Elizalde aurrean aritzea espero zen, baina buruz burukoan ohituagoa dagoelakoan, sakez ere min gehiago egin zezakeelakoan, Olatz Ruiz de Larramendik bere postua aldatzea erabaki dute aurkariak ezustean harrapatzeko asmoz. Dena den, estrategia erabat alferrikakoa izan zen eta ezinezkoa izan zen Iera Agirre eta Maite Ruiz de Larramendik osatutakoa bikote sendoari aurre egitea.

Partida erdian estrategia aldatzeko aukera izan zuten, hau da, Olatz Ruiz de Larramendi atzera bueltatzeko, baina berdin jarraitzeko erabakia hartu zuten. Final laurdenetan bezala, partida irabaztea uste baina errazagoa izan da iazko pilota goxoko irabazleentzat. Asko arriskatu gabe, hasiera-hasieratik markagailua aldeko izan zuten (6-1) eta alde hori ondo kudeatzen jakin dute. Azkenerako Iera Agirre izan zen sakearekin min handia egin zuena, denera zazpi tanto ere lortu zituelarik lehen pilotakadarekin eta amaieran baino ez ziren urdinak jarraian lau tanto egiteko gai izan, horrekin markagailua apur bat txukuntzeko aukera izan zutelarik (22-12).

Bigarren finalerdiak, berriz, hasiera eta bukaera oso desberdina izan zuen. Izan ere, hasiera oso lehiatu eta orekatua izan zen, oso piloteatua izan baitzen, bina eta hirunako berdinketekin, baina hortik aurrera Olatz Arrizabalaga eta Naroa Agirre goitik behera nagusitu ziren. Partiduaren emaitzak erakutsi zuenez oso ondo konpontzen dira Gernikakoa eta zestoarra.

Bizkaitarra joko bolada izugarrian dago, saketik hasita, min handia egin die gasteiztarrari eta azpeitiarrari eta, bereziki bigarren zatian, erasoan distira handia erakutsi du, airez ere tantoa bikain amaituz. Eta joko horretarako lagun ezin hobea du Naroa Agirre. Oso pilotari segurua da zestoar gaztea, pilota gutxi galtzen ditu eta gaur gainera oso ondo moldatu da Oihana Orbegozori ezkerra topatuz. Tantoaren ekimena eurena izan da ia partida osoan zehar eta halakoetan Olatz Arrizabalagak ez du barkatzen. Lana eta jarrera ezin zaie ukatu Leire garai eta Oihana Orbeogozori, gasteiztarrak ale ederren bat utzi zuen, baina aurkariak gehiago direnean ez dago zer eginik.

Finaleko irabazleak erabakitzeko

Binakako Master Laboral Kutxa 2021eko finaleko garailea apirilaren 4an eguerdiko 12:00etatik aurrera erabakiko da Urantzu pilotalekuan. Finalerdiak bezala, finala ere, pandemiak ezarritako murrizketen ondorioz, ate itxiekin jokatuko dira. Hala ere, ETBko kamerek zuzenean emango dute finaleko partidua.

Joseba Zabala, Ilcapo Hondarribiako jokalaria:

"Gure intentzioa partidu guztiak irabaztea da, lehenbailehen finalera iristeko"

Ilcapo Hondarribia eskubaloi taldea Bidasoa taldearen filiala da. Denboraldi honetan Bigarren Maila Nazionalean jokatzen ari da eta orain arte jokatutako 6 jardunaldietatik 5 partidu irabazi eta bakara berdindu dute. Taldearen helburua datorren denboraldira begira kategoriaz igotzea dela azaldu du Joseba Zabala Ilcapo Hondarribiako jokalari irundarrak

Denboraldia modu izugarrian hasi duzue, 5 garaipen eta berdinketa bakarrarekin?

Bai, lehen jardunaldian arazo bat izan genuen, izan ere, Bidasoarekin batera entrenatzen ari diren jokalariek ezin izan baitzuten partidu hura jokatu. Izan ere, koronabirusaren asuntuarekin lehen taldean positiboren bat sartzeari beldur handia diote eta, ondorioz, jokalari gutxi joan ginen partidura. Hala ere, berdinketa garrantzitsua lortu genuen. Gainontzeko partiduak nahiko erraz irabazi ditugula esango nuke. Azkenekoa Gasteizen jokatu genuen eta apur bat gehiago kostatu zitzaigun partidua irabaztea, baina orokorrean, partiduak nahiko erraz irabazten ari garela uste dut eta ea horrela jarraitzen dugun.

Taldeak Ilcapo Hondarribia izena izan arren, Bidasoaren harrobiko parte zarete?

Bai, hori da. Bidasoan zuzendaritza batzorde berria sartu zenean Hondarribia eskubaloiarekin nolabaiteko hitzarmena egin zuten. Aurreko urtean nolabaiteko filiala ginen eta horrek gure jokalariei Bidasoako lehen taldearekin batera jokatzeko aukera ematen zien. Orain Gorka Nieto, Tao, Furundarena, Urruzola eta Martín Santano jokalariek, adibidez, gurekin fitxa daukate, baina Bidasoan jokatzen dute noizbehinka.

Entrenamenduetan horrelako jokalariekin bestelako erritmoa nabaritzen duzue?

Pandemiaren arazoarekin aurten ezinezkoa izan zaigu haiekin asko entrenatzea. Izan ere, kutsaketak saihesteko, ez da oso komenigarria aldi berean jokalariak bi talde desberdinetan entrenatzen edo jokatzen aritzea. Hortaz, partidua daukagunean asteburu horretan edo aurreko entrenamenduetan gurekin etortzen dira. Gurekin datozenean asko nabaritzen dugu, jende gehiago gaudelako eta 12 jokalarien partiduak jokatzeko aukera ematen digu horrek, entrenamenduaren kalitatea hobetuz.

Aitor Etxaburu da zuen entrenatzailea, Bidasoko jokalari ohi esanguratsuenetako bat. Zer sentitzen da maila horretako entrenatzaile batekin?

Bai, taldeko jokalari beteranoagoek Aitor Etxaburu, Svensson eta talde hartako jokalariei buruzko erreferentzia gehiago dauzkagu. Gazteagoek, aldiz, ez dute hainbeste ezagutzen. Guretzat sekulako aukera da eskubaloiaren munduan hainbeste gauza irabazi dituen entrenatzailea izatea, horrela, bere esperientziatik ikasteko aukera dugulako ezin gara kexatu.

Esperientzia hori jasotzea garrantzitsua izango da batez ere etorkizunean Hondarribia taldeko entrenatzaile izateko asmoa duten jokalarientzat?

Ereintzan eta aurretik ibilitako bestelako taldeetan izandako entrenatzaileak ere maila onekoak izan direla esan dezaket, hau da, aurretik talde garrantzitsuetan ibilitakoak. Esan bezala, Aitor Bera Beran, Anaitasunan, Bidasoan, ASOBALen edo Frantziako lehenengo mailan ibilitakoa da. Ni neu entrenatzailea naizenez, ariketen adibideak hartzeko edo gure mailara egokituta egiten duen lana ikusita, sekulako eredua dela esan dezaket.

Orain arte lortutako bost garaipenak eskuratuta hurrengo faserako sailkatzea lortu duzue?

Ez, beste multzoan oraindik jokatzeko dagoen partiduren bat gelditzen dela uste dut. Momentuz partidu horiek ez dirudi jokatuko direnik, beraz, ez dakit nola moldatuko diren. Orain arte egin dutena izan da multzo bakoitzeko lehenengo lau taldeak haien artean jokatzea izan da, hau da, final-laurdenak egiteko. Guri Loiola eta Indautxu bizkaitarren aurka jokatzea egokitu zaigu eta kanporaketak dira. Liderrak izan garenez lehenengo partidua Bizkaian dugu, bigarrena, berriz, etxean. Gauzak horrela, kanporaketa hori gainditzea lortuz gero, final-erdietara pasako ginateke eta final-erdietan irabaztea lortuko bagenu, finalarekin igoera fasea jokatuko genuke.

Denboraldia partidurik galdu gabe egitera behartu zaudete horraino iristeko?

Bai, hala da. Dena dela, joaneko eta itzuliko partiduak dauzkagunez, bi partiduetako batean gaizki jokatuz gero, beti bigarren partidua izango dugu alde gehiagorekin irabazi eta aurrekoan egindakoa konpontzeko. Gure intentzioa partidu guztiak irabaztea da, lehenbailehen finalera iristeko.

Taldekide eta entrenatzaileen maila ikusita, mailaz igotzeko aukerak dauzkazuela uste duzu?

Bai, hori izan beharko litzateke gure helbururik garrantzitsuena. Izan ere, egun dauzkagun jokalariek maila altuagoko arerioak behar dituztela uste dut. Horietako batzuk Asobal mailan entrenatzera ohiturik daude eta, errespetu osoz, bigarren maila nazionala txiki gelditzen zaie. Hortaz, gure bigarren taldea gutxienez lehen maila nazionalean egotea garrantzitsua iruditzen zait, bertan maila polita izango genukeelako eta jokalariek hobetzeko aukera gehiago izango luketeelako.

Nolakoa da Urantzu pilotalekuan entrenatzea? Gustura zaudete?

Aurten ez gara hor entrenatzen ari. Izan ere, Urantzura alterofilia aretora etorri ohi ginelako gimnasio entrenamenduak egiteko, baina, koronabirusaren ondorioz ezin dugu areto horiek erabiltzen jarraitu. Aurreko urtean, ordea, pesak egin ostean zelaira jaisten ginen batzuetan. Egia da, Artaleku eta Hondarribiko kiroldegi honetan entrenatzera ohiturik bazaude, hori okerragoa dela iruditzen zaizu, baina beste aukerarik ez dagoenez, ez dago gaizki.

Bidasoa Bizirikek turismoaren sektorea laguntzeko ekimenak iragarri ditu

Hainbat ekintza online egingo dira hedabideetan zein sare sozialetan

Turismoaren sektorea egoera berrira egokitzeko beharrean dago. Horretarako, Bidasoa bizirik-en bitartez Irun eta Hondarribiko Udalek dinamizazio-plan bat aurkezteko asmoa iragarri dute, laster turismoaren sektorean aurkeztuko dena. Hortaz gain, bideo, sare sozial eta online presentzia areagotzen lagunduko duten ekintzak indartzeko asmoa adierazi dute, horretarako, online atarietan espazioak kontratatuko direlarik.

Miguel Ángel Páez Bidasoa bizirik-eko lehendakariaren hitzetan, "bizi dugun egoeraren ondorioz turismoaren sektorea sektore zigortuenetako bat da eta inoiz baino gehiago lagundu nahi diogu". Bidasoa bizirik-eko lehendakariak azaldu duenez, oraingoz, bisitariak Euskaditik soilik etorri ahal izango diren arren, Irunek eta Hondarribiak soberako potentziala dute bisitari horiek buruan izan ditzaketen destinoen artean erakargarri izateko eta ekintza hauek hori erakusteko asmoa azaldu du.

Bestalde, Maria Serrano agentziako lehendakariordeak nabarmendu, "egiten ari garen sustapen-ekintza guztiek indarrean dauden murrizketak kontuan hartu dituzte, bai mugikortasunari dagokionez, bai Covid-19aren hedapena geldiarazteko guztiok errespetatu behar ditugun gainerako neurriei dagokienez".

Egoera aldatu dela kontuan hartuta, Bidasoa bizirik-ek hainbat sustapen-ekintza abiatu ditu online atarietan. Zentzu horretan, hurrengo hilabeteetan sare sozialetan hainbat ekimen abiatuko dira, horien artean, 'influencer'-ekin ekimenak, estatu mailan zein Frantziako biztanleen artean eskualdea ezagutarazi eta balioan jartzen lagunduko dutenak. Hasteko, Bidasoa eskualdea Espainiako Trenbideen Fundazioak abian jarri berri duen Bide Berdeen Gida berrian agertuko da.

Bestalde, banner-ak jarriko dira Guide Pays Basque webgunean (www.guide-du-paysbasque.com). Bannerrak turismo-bulegoen ataletan sartuko dira, Irun eta Hondarribiko turismo-webgunerako estekekin (www.bidasoaturismo.com), 'Hondarribia Irun Turismo' sare sozialak aipatuz eta harremanetarako helbide elektronikoa eta egoera-planoa ipiniz.

Irun eta Hondarribia ere lurraldeko autobusetan egongo dira hilabete batez, Donostialdeko 324 autobusen erabiltzaileek eskualdeko iragarkiak ikusi ahal izango baitituzte bertako telebistetan.

Promozio bideoak

Alde batetik, bi publizitate-bideo egin dira jada, eta horietan Miguel Ángel Páez Bidasoa bizirik-eko lehendakariak azaldu duenez, " Hondarribia eta Irun natura turismorako eta turismo gastronomikorako leku aproposak direla, eta, jakina, segurtasun-neurri guztiak betez egungo egoerara egokituta daudela nabarmentzen da".

Zehazki, bi hirietako irudiak erakusten dituzten bi bideo dira, sare sozialetan promozio ekintzen bidez zabalduko direnak, eta María Serranok Bidasoa bizirik-eko lehendakariordearen hitzetan, "estatuko nahiz Frantziako turistak erakarri nahi dira bideo horiekin, etorri ahal direnerako".

Bestalde, eskualdeko esperientzia enogastronomikoei buruzko bideoak berritu dira. Hain zuzen ere, bisitariek eta tokiko biztanleek hemendik aurrera egin ahal izango dituzten lau esperientzia berriei buruzko bideoak, www.bidasoaturismo.com helbidean ikus daitezkeenak. Páez elkarteko lehendakariak gaineratu duenez, "gure gastronomia dastatzeko modu desberdinak eta bakarrak dira esperientzia hauek, bertako produktuez gozatzeko eta eskualdeko gastronomiako ekoizleak, sukaldariak eta profesionalak ezagutzeko".

Gainera, esperientzia guztiak biltzen dituen bideoa bitan banatu da, hiriak banatzeko. "Horrela, erabiltzaileak modu argiago eta errazagoan jakin ahal izango du zer egin dezakeen hiri bakoitzean" esan du María Serranok.

Azkenik, bi minutuko bideo bat egin da Irungo eta Hondarribiko 14 itsas jardueretako enpresa bakoitzarentzat, haien zerbitzuei buruzko informazioa zabaltzen laguntzeko. Halaber, enpresa guztiak agertzen diren 45 segundoko bideo orokor bat sortu da.

Bideo guztiak sare sozialen eta online sustapen kanpainen bidez zabalduko dira.

Hedabideetan presentzia

Bestetik, publizitate-kanpainak egingo dira gure sektore turistikoaren egungo xede-publikoan zein eragin handiko hedabide nagusietan. Kanpaina orokor zein espezializatuak egingo dira.

Horrela, goi denboraldia hasi aurretik, Donostia Turismoko informatzaileek eskualdea bisitatuko dute bi hiriak Gipuzkoako hiriburua bisitatzen dutenen artean ezagutarazteko. Era berean, aipatzekoa da apirilean ekoizle batek Donejakue Bidea astoan egitearen inguruko dokumental bat grabatuko duela.

Turismoko gidak

Irunen eta Hondarribian turismoari buruzko gida nagusiak berrargitaratu dira paperean. Zehazki, ostatu-gida berriaren 11.000 ale publikatu dira lau hizkuntzatan; 'Non jan' gida berriaren 50.000 ale, lau hizkuntzatan, eta 'Hondarribia eta Irun turismoa' gidaren 25.000 ale, euskaraz eta gaztelaniaz, eta beste 10.000, frantsesez eta ingelesez. Gainera, Irun eta Hondarribiko 60.000 plano eguneratu eta inprimatu dira.

Azkenik, azpimarratu beharra dago Irungo bulegoa hobetzeko toldo bat jarri dela. Horrekin batera, Irungo bideo turistiko bat egiteaz gainera, kaltetuta zeuden Irugurutzetako App-eko panelak konpondu dira.

"Bizi dugun egoeraren ondorioz turismoaren sektorea sektore zigortuenetako bat da eta inoiz baino gehiago lagundu nahi diogu"

Miguel Ángel Páez,
Bidasoa bizirik-eko
lehendakaria

"Estatuko nahiz Frantziako turistak erakarri nahi dira bideo horiekin, etorri ahal direnerako"

María Serrano,
Bidasoa bizirik-eko
lehendakariordea

DUNBOA HH

DUNBOA HH EUSKARAREN URETAN MURGILDUTA

Denbora-pasak

7 hitz: Usain-belarrak

C	M	G	Q	T	C	E	Q	E	Y	P	W	R	C
T	I	M	E	N	D	A	F	I	N	H	H	P	D
B	H	X	U	W	B	L	W	E	G	F	C	E	Q
D	I	Y	Z	Z	Q	B	D	Z	E	V	Q	R	G
B	L	Z	S	U	A	E	J	K	R	R	P	R	M
U	U	N	M	T	O	R	T	A	R	T	S	E	N
Y	R	O	E	G	J	E	I	I	O	M	C	X	B
B	A	G	Z	V	P	I	F	J	M	X	G	I	E
N	F	N	U	Q	T	N	G	Y	E	O	V	L	L
O	W	I	E	A	S	O	A	V	R	K	Z	V	H
J	F	D	G	T	A	T	O	H	O	V	A	O	U
D	K	B	Y	J	A	Z	O	R	C	L	S	S	W
Y	F	F	F	V	W	X	G	M	F	N	N	G	U
Q	S	R	L	C	N	Z	S	A	U	F	X	Z	J

Erromero, mendafin, aneta, mihilu, ereinotz, perrexil, ezkai

	5				1			
	6		9					
8	9	7		6	2		4	5
			7		8	2		6
			6		9	4		
			2		5	7	8	9
	4				6			
		6		8		3		
	7							4

IRUNABAR
IRUNGO BERTSOAREN BILGUNEA

Irungo Harrera Sarea

Doinua: Kintak jarrita ondorenian (Cubako gerrarenak)
Egilea: Abel Zabala Elizazu

1-Eskualdean bada talde bat
Irungo Harrera Sarea
migranteekin egiten du lan
ederra, paregabea
haiek artatuz haiek lagunduz
haiei goxatuz bidea
bere jarduna plazaratzea
nire sortaren xedea

2-Bi mila eta hemezortziko
udako egun batean
hainbat migrante agertu ziren
RENFE geltokiko atean
egun batzuek pasa zituzten
haiek artatu arte han
ez genekien zenbat gehiago
helduko ziren artean.

3-Geroztik zifrak gora egin du
azkarrago, mantsoago
eta milaka etorri dira
hori begi bixtan dago
bi mila eta hogei urtean
bi mila baino gehiago
baina tamalez egoera honek
jarraituko du luzaro.

4-Frantzia edo Alemania
migratearen jomuga
baina zubia zeharkatzea
zer nolako abentura
Hendaialdean harrapatuak
dira gaizkile modura
ta poliziak berriz Iruna
bueltatzea seguru da.

5-Gobernuz kanpo dauden taldeek
jarri zuten interesa
ordezkatzeko agintariek
emandako erantzun eza
ordutik hona bidea noski
ez da izan hain erreza
gure artera heldu den orok
eduki dezan babesa.

6-Hiru taldetan banatzen dute
euren jardueren zama
Gautxorikoak joaten dira
geltokira haiengana
Harrerakoek banatzen dute
informazio andana
eta arropa arduradunek
arropa batzeko lana.

7-Gautxorikoen jarduna noski
kontuan hartu beharko
geltokiraino joaten dira
busa datorrenerako
ahal den azkarren artatu oso
garrantzitsua delako
pasatzaileen eskutan laister
erori daitezkelako.

8-Harrerakoen taldean ere
bada hainbat jende prestu
noski ederki dakite jakin
pertsona nola babestu
galderarikan inork badauka
ba erantzuna erreztu
eta planorik behar badute
jartzen dute haien esku.

9-Look aldaketak edo itxurak
ez du garrantzi gutxi (e)ta
aldagelara egiten dute
ezinbesteko bixita
eta handikan irteten dira
egokiago jantzita
migrantearen uniformea
alde batera utzita.

10-Bolondres hauen jokabideak
badu nahikoa meritu
debalde ze lan egiten duten
hemen ezin da kabitu
eta norbaitek bere ekintzaz
lagundu nahiko balitu
udaletxeko aurrekaldean
hantxe topatuko ditu.

BELASKOENEA LH5

EKOSISTEMAK

5.mailakoak ingurunen ekosistemak landu ditugu. Gauza asko ikasi ditugu eta gaia bukatzerakoan, taldeka eskulan hau egin dugu. Kontatuko dugu nola egin dugun:

- Taldeetan jarri gara: 3 edo 4 ikasle talde bakoitzean.
- Zapata kutxak ekarri ditugu.
- Kutxa bakoitzean ekosistema bat egin dugu.
- Honako materiale hauek erabili ditigu: paperak, plastilina, harriak, goroldioa, hostoak.

Lana denon artean banatu genuen eta kutxak oso politak geratu zirenez pentsatu genuen guk ikasitakoa bigarren mailako ikasleekin konpartitzea.
Egun batean beraien gelara joan ginen eta azalpena egin genien. Bigarren mailakoek oso politak direla esan zuten eta txalotu ziguten. Hementxe daude gure ekosistemak:

ITSASOA

ZAID-RUIHAN-JULEN-LUCÍA

IBAIA

NAROA-YOUSSEF-HIBA

BASOA

SARAY-EIDER-ADAM-NAYELI-

BASAMORTUA

JUNIOR-ELVIS-GUSTAVO-YANDER

Gurasoentzako Aholkularitza eta Kuadrisex zerbitzuen bitartez martxan da Asexora-T

“Konfidentzialtasunari garrantzi handia ematen diogu”

“Kuadrisex zerbitzuak kuadrillan sexualitateaz hitz egiteko aukera ematen du”

Asexora-T zerbitzuak aurrez aurreko kontsultak edo online eskainitako zerbitzuak berreskuratu ditu pandemiaren etenaldiaren ostean. Kuadrisex edo berriki estreinatutako gurasoentzako aholkularitza zerbitzuaren bitartez sexualitateari buruzko gazteen zalantzak argitzea bilatzen da. Raquel Calvo Asexora-T zerbitzuko arduraduna da.

Nola egokitu da Asexora-T zerbitzua pandemiara?
Koronabirusa iritsi zenean, zerbitzua online eskaini ahal izateko egokitu ginen. Horretarako Instagram-eko “Stories” atalean eta jolasen bidez funtzionatu genuen edo Gaztelekuarekin elkarlanean aritu ginen ekintza eta erronka prestatzeko.

Gaur egun, berriz, nola eskaintzen duzue Asexora-T zerbitzua?
Berriro Gaztelekura aurrez aurre zerbitzua eskaintzera itzuli gara eta aurrez aurre eskaintzen diren zerbitzu berri batzuk gehitu ditugu. Hortaz gain, kontsultak online egiteko aukera eskaintzen jarraitzen dugu eta, gainera, posta-elektronikoz edo webgunearen bitartez iristen zaizkigun kontsultak erantzuten ditugu.

Berriki gurasoentzako aholkularitza zerbitzu berria estreinatu duzue. Zertan datza?
Asexora-T barruan eskainitako zerbitzu berria da eta gurasoek haien seme-alaben sexualitateari buruzko galderak erantzuteko helburua du. Izan ere, aurretik gaiarekin loturiko galderaren bat jaso izan dugulako edo honelako zerbitzua ematea eskatu izan digute. Orain zerbitzua martxan dago eta nolako harrera izango duen ikusteko dago. Momentura arte antolatutako hitzaldiek oso harrera ona izan dute, gaiak interesa sortzen du eta haien seme-alaben sexualitate osasuna hobetu nahi dute. Zentzu horretan jakin nahi dute nola murgildu daitezkeen sexualitatean modu naturalagoan.

Hortaz, gazteez gain, gurasoei arreta eskaintzeko beharra ikusi zenuten?
Bai, oso interesgarria iruditu zitzaigun, zenbaitetan, gurasoez gainera, pertsona helduen kontsultak ere jaso ohi ditugulako. Asexora-T gazteei zuzendutako zerbitzua da berez eta batzuetan ezinezkoa zaigu helduen galderei guztiei erantzutea, ondorioz, beste departamentu edo zerbitzu batzuetara zuzentzen ditugu.

Kuadrisex martxan dagoen beste zerbitzuetako bat da. Zertan datza?
Kuadrisex zerbitzuak kuadrillan sexualitateaz hitz egiteko aukera ematen du. Konekta zerbitzuarekin batera aholkularitza zerbitzua eskaintzea aztertu genuen eta hilabeteko azken larunbatetan aurrez aurreko zerbitzu eskaintzen dugu. Bestetik, asmoa kuadrillan sexualitateaz hitz egitea bada, sexualitatea lagunekin elkartzea erabaki genuen, giro horretan eroso sentitzeaz gainera, gaian aditua den norbaitekin lasaitasunez hitz egiteko aukera izan dezaten. Horrela, zalantzak argitzeko aukera izango dute.

Kuadrisex zerbitzua pandemiaren murriztapen neurrietara egokitu da?
Bai, noski. Pandemia hasi zenetik zerbitzu guztiak egokitu behar izan ditugu. Hortaz, talde txikietan biltzen gara, pertsonen arteko distantziak errespetatuz, une oro maskara eta gel hidroalkoholikoa erabiliz.

Jarduera arrakastatsua dela esango zenuke?
Bai, pandemiaren hasieran nolabaiteko etenaldia nabaritu genuen. Egoera egonkortu ahala, galdera gehiago jasotzen hasi ginen eta pixkanaka jendea jardueretan izena ematen hasi da berriro, oraindik pandemia aurreko erritmoa guztiz berreskuratu ez bada ere. Egun bestelako gaiek kezka gehiago sortzen dizkigutela uste dut, nahiz eta gu geu sexualitatea garen eta dena sexualitatearekin loturik dagoen.

Sexualitatea konfiantzazko eremu batean lantzea lagungarria izan daiteke?
Bai, konfidentzialtasunari garrantzi handia ematen diogu, baina, modu berean, konfiantzazko giroa sortzen saiatzen gara jendea gurekin eroso sentitu dadin.

Zer egin behar da Kuadrisex barruan saio bat eskatzeko?
Aurretiaz hitzordu bat eskatu beharko lukete eta zenbat pertsonek parte hartu nahi duten jakinarazi behar dute. Horretarako, asexorate@irun.org edo konekta@irun.org helbidera idatzi behar dute. Hortik aurrera, hitzorduaren eguna, ordua eta tokia zehaztuko genuke.

Pandemiaren hasieratik zerbitzuan jasotako galderen kopuru edo motan aldaketarik nabaritu duzue?
Ez gehiegi. Gizartearen kezkak berdinak izaten jarraitzen dute. Hala ere, jende helduagoaren galderak jaso ditugu, bikote edo desirarekin loturikoak. Pandemiak sexu-grinaren inhibizioa eragin duela ikusi dugu kasu askotan, erabiltzaileen galderak edo bizipenak irakurri ostean.

Pandemiak harremanak izateko modua aldatu duen heinean, sexualitatean eragina izan du?
Bai, dezente gainera. Zalantza asko sortu ditu, nola ukitu edo jende berria ezagutzeko aukeren inguruan. Dena dela, maskararekin edo ukitu gabe jendea ezagutzen jarraitzeko aukerak daudela uste dugu, nahiz eta beste modu batean izan. Pandemia aurreko egoerara itzuli arte, beste modu batean harremanak izaten ikasi behar dugu, baina ziur naiz berriro elkar ukitu edo besarkatzera itzuliko garela.

Datozen aste edo hilabeteetan ekintza berririk antolatzeko asmorik duzue?
Bai, Haurtxokoekin lan egiten hasiko gara laster, hau da, 9 urtetik berako haurrekin. Horrekin loturik, Haurtxokoentzako ekintzaren bat prestatuko dugu. Bestetik, Konekta zerbitzuarekin batera jarduerak antolatzen jarraituko dugu. Orain dela gutxi “Satisfacete” ekintza antolatu genuen, sexu-jostailuak, plazera, erotismoa eta autoezagutza lantzeko eta gazteentzat antzeko beste zerbait egitea pentsatu dugu. Azkenik, hemendik gutxira Gaztelekuarekin batera “Sexualitatearen Party & Co” jolasa antolatuko dugu eta jendea parte hartzera animatu dadila espero dugu.

irun
www.irun.org/igazte
gazte
informazioa

- Aurrez aurre: Irungo CBA liburutegi berrian
- Telefonoz: 943 50 54 44 / 943 50 54 40
- Posta elektronikoz: igazte@irun.org
- Webean: www.irun.org/igazte
- WhatsApp bidez: 607 771 173

MoveYouTalent

Zer dakizu oso ondo egiten? Zertan zara benetan ona? Etengabeko prestaketa jaso eta zure garapen profesionala hobetzea gustatuko litzaizuke? Ez dakizu zure talentua aprobetxatzen eta ez zara zure balio-proposamena garatzeko gai? Gustatuko litzaizuke oso ondo egiten dakizun zer den ikusi eta zure ekintza-plana egitea?

Adina: 18-30 urte.

Modalitatea: Aurrez aurre eta online.

Data: 2021eko apirilaren 23 eta 24an.

Ordutegia: Ostiralean: 16:30-20:30 / Larunbatean: 09:30-13:30.

Tokia: Palmera Montero.

Epea: Apirilak 19.

Haur eta gazteen aisialdiko jardueren zuzendaritza eta koordinazioa

3. mailako profesionaltasun-ziurtagiria: Haur eta gazteentzako aisialdi hezigarriko jardueren zuzendaritza eta koordinazioa

Helburua: haurrei eta gazteei zuzendutako aisialdi hezigarriko proiektuak planifikatu, antolatu, kudeatu, dinamizatu eta ebaluatzeko gaitasuna lortzea haren alderdi guztietan.

Data: hasiera laster.

Ordutegia: 15:00etatik 20:00etara.

Diru-laguntza du!

Auzolandegiak 2021

Zer dira Auzolandegiak? Auzolandegietan leku askotako gazteak biltzen dira, euren borondatez eta ordainetan ezer jaso gabe, aldi batez elkarrekin bizi eta gizarte osoarekin zerikusia duen proiektu batean parte hartzeko asmotan.

Izena ematea: apirilaren 1etik 21era.

EBren elkarrizketa gazteekin

Online inkesta, gazteen iritziak hobeto ulertzeko, gaitzat harturik Europako Gazteriaren Xedea: espazioa eta parte-hartzea guztiontzat.

Jakin nahi dugu gazteek zer-nolako espazio publikoak behar dituzten biltzeko, ikuspuntu politikoak eztabaidatzeko eta gazteentzako proiektu garrantzitsuak antolatzeko.

Halaber, ziurtatu ere egin nahi dugu gazteek informazio argia jasotzen dutela interesatzen zaizkien gai publikoei buruz, eta lagundu egin nahi diegu informazio mota hori ulertzeko eta modu kritikoan hausnartzeko behar dituzten gaitasunak eskuratu ditzaten.

Galdetegia betetzera gonbidatzen zaitugu.

Epea: ekainak 15.

Aste Santuko oporrak Gaztelekuan!

Oporraldian...Gaztelekura!! Aste Santuko oporretan ekintza eta tailer pila antolatu ditugu, beraz azkar begiratu zeinetan eman nahi duzun izena, plazak mugatuak dira eta!!

Apirilak

1

Meatzeetako trena

Zer: Oiasso Museotik irten eta meatzeetako trenak Irugurutzetako mea-barrutira eramango zaitu, non meatzeak eta kaltzinatze labeak bisitatzeko.

Irteera: Oiasso Erromatar museotik.

Ordua: 11:00etan.

Salmenta: 943639353 telefono zenbakian, info-oiassomuseo@irun.org helbide-elektronikora idatziz edo museoko harreran zuzenean.

Prezioa: 5,50 euro, bidaia eta meatzera bisita barne.

Oharra: Ekintzan parte hartzeko aldez aurretik izena ematea beharrezkoa da.

4ra arte

Zirku italiarra

Zer: "El circo encantado" familientzako ikuskizuna da, ikusle guztiei zirkuaren mundura hurbiltzea eta hura errespetatzea proposatzen diena, pasioz eta iraunkortasunez erronka guztiak betetzen direla erakutsiz.

Non: Ficobako aparkalekuan.

Sarreren salmenta: Internet bidez.

Informazio gehiago: ilcircoitaliano.com webgunean.

5

Ikertze Tailer Laboratorioa

Zer: Familientzako ekintza, a sorkuntza-tresnak izango diren jolasekin kontzeptu desberdinak esperimentatu eta bakoitzak bere obra artistikoa garatzeko aukera izango du.

Non: Oiasso Erromatar Museoan.

Ordua: 11:00etatik 12:30etara.

Prezioa: 4 euro.

Sarrerak: 943639353 telefono zenbakian, info-oiassomuseo@irun.org helbide-elektronikora idatziz edo museoko harreran zuzenean.

6

Herkulesen hamabi probak

Zer: Ibili museoan gure APParekin esku artean eta gainditu 12 probak.

Non: Oiasso Erromatar Museoan.

Ordua: 11:00etatik 12:30etara.

Prezioa: 4 euro.

Sarrerak: 943639353 telefono zenbakian, info-oiassomuseo@irun.org helbide-elektronikora idatziz edo museoko harreran zuzenean.

11

Ganbera Zikloa Ricardo Requejo 2021

Zer: Maria Martin Campos sopranoak, Iñaki Gezala pianistarekin batera, hainbat abesti eta lieder eskainiko ditu.

Non: Amaia Kultur Zentroan.

Ordua: 19:00etan.

Sarrerak: Internet bidez, Irungo turismo bulegoan edo leihatilan ikuskizunaren egunean bertan.

Prezioa: 4,50 euro.

15

Zure abenturaren bila

Zer: "Hegoaldeko olibondoetatik iparraldeko basoetara" hitzaldia euskaraz Eneko Redondoren eskutik.

Non: Amaia Kultur Zentroan.

Ordua: 19:30etan.

Sarrera: Librea, tokiak bete arte.

Iraupena: 50 minutu.

Denbora-pasen emaitzak



4	5	3	8	7	1	9	6	2
2	6	1	9	5	4	8	3	7
8	9	7	3	6	2	1	4	5
9	3	5	7	4	8	2	1	6
7	8	2	6	1	9	4	5	3
6	1	4	2	3	5	7	8	9
3	4	9	1	2	6	5	7	8
5	2	6	4	8	7	3	9	1
1	7	8	5	9	3	6	2	4

360°

Estudio Goverretik sektore profesionalera zuzendutako argazkilaritza digitaleko marka berria aurkezten dugu.

Katalogo, webgune, sare sozial eta "take away" zerbitzua eskaintzen duten enpresentzako argazkiak egiten ditugu.

ZURE ENPRESAREN IRUDIAK GARRANTZI HANDIA DU.

Bisitatu gure webgunea!
www.fdefoto.es

-GASTRONOMIKOA
-PRODUKTUAK
-KATALOGOAK
-PUBLIZITARIOA
-EKITALDIAK
-INMOBILIARIAK
-KORPORATIBOA
-2D 360º-NOBEDADEA!

fdefōto

LETXUNBORRO HIRIB. 100 , 2ºA
20305 IRUN - GIPUZKOA -
hola@fdefoto.es
fdetofo.es
943 840 113 - 647 930 484